



Olatzarreko Babes Ofizialeko 33 etxebizitzaren eta Araubide Tasatuko 24 etxebizitzaren esleipenerako prozedurak

- 2024ko ekainaren 11n, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (112 Zk) argitaratu dira Olatzar eremuan eraikiko diren babes ofizialeko 33 etxebizitzaren eta Araubide Tasatuko 24 etxebizitzaren esleitze prozesuetan parte hartzeko bete behar diren BALDINTZAK ETA IRAGARKIA <https://lezo.eus/eu/jendaurrean>.
- ESLEIPENAK zozketa bidez egingo dira, oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eta epe barruan izena eman duten pertsonen artean.
- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA:
2024ko ekainaren 12tik uztailaren 11ra bitarte.
- ESKAERAK telematikoki egin daitezke lotura honetan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/Default.aspx?idAyto=53&idioma=eu-ES>

Inskripzioak aurrez aurre ere egin daitezke, Herritarrendako Arreta Zerbitzuan:
Helbidea: Gurutze Santuaren Plaza, 1
HAZ ordutegia: asteleheneretik ostiralera, 8:30etatik 13:30era.
Telefonoa: 943 52 46 50

Eskaera orri ofiziala guztiz bete behar da, bertan zenbat logelatako (2 edo 3) etxebizitzaren zozketan parte hartu nahi duten zehaztu behar dute (bieran posible da), eta zein kupotan parte hartuko duten hau behar bezala justifikatuz.

- Eskaerarekin batera aurkeztu behar den DOKUMENTAZIOA esleipen oinarrien II. kapituluaren deskribatzen da, eta bizikidetzaren unitatea osatzen duten eta etxebizitzaren titular-kide izango diren adinez nagusi guztiei dagokiena:

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETAN:

- ✓ NAN
- ✓ Urteko 12.000 €-tik 43.753,71 €-ra bitarteko diru-sarrera justifikatu behar da. Horretarako 2022ko errenta-aitorpena aurkeztuaz (ez da onartuko 2023koa). Aitorpena egitera behartuta ez daudenek, Foru Ogasunak emandako salbuespen-ziurtagiria aurkeztu behar dute. Azken kasu horretan, oinarrien 2.2 puntuan zehazten den dokumentazioarekin batera.
- ✓ Oarsoaldeako Udalek emandako errolda-ziurtagiria. Lezon erroldaturik daudenek ez dute ziurtagiririk aurkeztu behar.
- ✓ Lezon lana egiten dutenek: indarrean dagoen lan kontratua.
- ✓ Kupo berezi batean dagoela ziurtatzeko horri dagozkion dokumentazioa.

ARAUBIDE TASATUKOETAN:

- ✓ NAN
- ✓ Urteko 15.000 €-tik 56.094,50 €-ra bitarteko diru-sarrera justifikatu behar da. Horretarako 2022ko errenta-aitorpena aurkeztuaz (ez da onartuko 2023koa). Aitorpena egitera behartuta ez daudenek, Foru Ogasunak emandako salbuespen-ziurtagiria aurkeztu behar dute. Azken kasu horretan, oinarrien 2.2 puntuan zehazten den dokumentazioarekin batera.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- ✓ Oarsoaldeako Udalek emandako errolda-ziurtagiria. Lezon erroldaturik daudenek ez dute ziurtagiririk aurkeztu beharko.
- ✓ Lezon lana egiten dutenek: indarrean dagoen lan kontratua.
- ✓ Kupo berezi batean dagoela ziurtatzeko horri dagokion dokumentazioa.

[ETXEBIZITZEI BURUZKO INFORMAZIOA](#)

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK:

33 etxebizitza:

- Mugikortasun urria edo adimenezintasuna duten pertsonentzat gordetako 2 etxebizitza (etxebizitza egokitua).
- Hiru logelako 7 etxebizitza.
- Bi logelako 24 etxebizitza.

Etxebizitzen prezioa 157.751,37 € eta 206.723,54 € bitartekoa izango da (BEZ gabe).

ARAUBIDE TASATUKO ETXEBIZITZAK:

24 etxebizitza:

- Mugikortasun urria edo adimenezintasuna duten pertsonentzat gordetako etxebizitza 1 (etxebizitza egokitua).
- Hiru logelako 8 etxebizitza.
- Bi logelako 15 etxebizitza.

Etxebizitzen prezioa 199.842,50 € eta 248.477,06 € bitartekoa izango da (BEZ gabe).

Etxebizitzei buruzko informazio gehiagorako, sustatzailearekin jarri zaitezke harremanetan:

[Sustatzailea:](#)

CONSTRUCCIONES MICHELENA Y LECUONA SUCESORES, S.L.

Diputazio Plaza, 1, Iztieta, 20100 Errenteria, Gipuzkoa

Tel.: (+34) 943 51 30 89